

**ESTERIBARKO TALDE, ELKARTE ETA BIZILAGUNEI LAGUNTZAK EMATEKO
DEIALDIAREN OINARRIAK, 2023an ESTERIBARKO UDALAK BABESTUTAKO
HERRIETAKO ZAINDARIEN JAIK EGITEKO.**

Esteribarko Udalak, bere aurrekontu orokorren mugen barruan, laguntza eta dirulaguntzak emanen ditu **OINARRI** hauen arabera:

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Laguntzen helburua izanen da 2023an Esteribarko Udala osatzen duten herri babestuetako zaindarien jaiak sustatzea eta babestea.

2.- FINANTZAKETA

Dirulaguntza horiek Esteribarko Udalaren 2023. ekitaldiko aurrekontu orokorreko 3380 4820001 eta 4820002 partiden kargura finantzatuko dira, partida horretan ezarritako gehieneko zenbatekoan.

Onuradunek gehienez 400€ jaso ahal izanen dituzte kopuru finko gisa, eta 15€ deialdia ebazten den unean udal-errolan izena emandako biztanle bakoitzeko.

Era berean, Esteribarko Udalak bere gain hartuko ditu, behar izanez gero eta onuradunak aldeztu aurretik hala eskatuta, puzgarri baten kostua (Ollokiren kasuan, kopuru hori handituko da) bainu kimiko baten kostua (Ollokiren kasuan, kopuru hori handituko da), elektrizitate hargunearen egokitzapena, karpa muntatu eta desmuntatzea, mahai eta aulkien mailegua eta erantzunkizun zibileko aseguruaren kostua.

3.- DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak Esteribarko Udalak babestutako herrietako zaindariaren jaiekin lotuak izanen dira.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- a)** Asistentzia-jarduerak (antolatzaileen soldatak, dietak, etab.)
- b)** Ausazko jokoetan parte hartzea
- c)** Esteribartik kanpo egiten diren jarduerak
- d)** Elkartearen edo taldearen beraren gastu orokorrak edo mantentze gastuak
- e)** Jarduera piroteknikoak edo bigantxak askatzea.

Bazkari eta afarietarako dirulaguntza ez da izanen bazkari edo afari horren kostu osoaren %20tik gorakoa.

Herriko jaien egitarauko jarduerak gauzatzeko behar diren material-gastuak herri babestuari esleitutako gastu osoaren % 20an finantzatzeko dira, gehienez ere 900 euroko justifikatuz.

4.- ESKATZAILEAK

Laguntza hauek eskatzen ahalko dituzte gizarte eta kultur arloko elkarte edo taldeek, edo Esteribarko bizilagunek, irabazi-asmorik gabe, baldin eta Esteribarren jarduera jarraituak egiten badituzte, diskriminatzaileak ez badira eta ibarreko auzokideei irekita badaude.

Hauek dira udal laguntza hauen onuradun izateko baldintzak:

1.- Eskatzailea elkarte edo taldea baldin bada:

- a) Legez eratutako erakundea izatea.
- b) Egoitza soziala Esteribarren izatea.
- c) Nafarroako Gobernuak Elkarleen Erregistroan inskribatuta egotea.

2.- Eskatzailea bizilaguna bada:

- a) Jaiak ospatuko diren herriko udal-errolan izena emanda egotea ala bertako ohiko etxebizitza egiaztatzea.

5.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Jarduera baterako dirulaguntza eskaera bat aurkezte hutsak dirulaguntza ematea arautzen duten oinarriak ezagutzea eta onartzea dakar.

Dirulaguntzaren onuradunek betebeharrak hauek izanen dituzte:

- Ezin izanen dira bi herritako zaindariak jaiegun egun beretan ospatu. Kasu horretan, ukitutakoek akordio batera iritsi beharko dute. Ados jarri ezean, udalak esku hartuko luke.
- Dirulaguntzak deialdiaren baitan onartutako programa gauzatzeko soilik erabiltzea.
- Esteribarko Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak onartzea.
- Udalarik jakinaraztea diruz lagunduko diren jardueretarako beste dirulaguntza edo diru-sarrerara batzuk lortu direla.
- Deialdian lortutako dirulaguntza justifikatzea.
- Ahalik eta lasterren jakinaraztea programaren garapenean gertatzen diren aldaketak. Edozein aldaketa egiteko, balorazio-organoaren adostasuna beharko da.
- Udalak eskatzen dion moduan justifikatzea dirulaguntzaren xedea bete dela.
- Publizitatean Udala aipatzea, diruz lagundutako jardueren 'laguntzailea' dela adieraziz.
- Bermatzea diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko erabiltzen diren publizitate-euskarri guztiak elebidunak izanen direla, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita eta hizkera eta irudi inklusiboak izanen direla. Baldintza hori betetzen laguntzeko, talde eta elkarleen eskura jartzen da Udaleko Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta zuzenketa zerbitzua (euskara@esteribar.org).

- Onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea, halakorik balego.
- Jasotako dirulaguntzak itzultzea, baldin eta egiaztatzen bada dirulaguntza horiek ez direla jarduera, programa edo proiektuetarako erabili, edo deialdi honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira.

6.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi honen onuradun izan daitezkeen elkarteek edo bizilagunek hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dute eskabidea, nahitaezko dokumentazioarekin batera, deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

7.- ESKAERAK ETA AGIRIAK

Aurrez aipatutako eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide orokorraren eredua, honako egiaztagiria hauekin batera:

a.1) Elkarre edo taldeen kasuan:

- Nafarroako Gobernuaren Elkarrearen Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria.
- Elkarrearen datu fiskalak (elkarrearen ordezkaria eta IFK)

a.2) Bizilagunen kasuan

- Ofizioz egiaztatuko da dirulaguntzaren xede diren jaiak ospatuko diren herriko udal-errolan inskribatuta dagoen. Bestela, leku horretan bizi ohi dela egiaztatu beharko du.

a.3) Herriko jaietako egitaraua.

a.4) Gastu eta diru-sarreraren aurrekontu banakatua, eurotan adierazita, bai eta ematen diren tokiko baliabideak edo baliabide propioak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatutako edo emandako dirulaguntzak ere, betiere dirulaguntzaren xede den aurkeztutako jarduera-programari dagokionez.

Eskabideek adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte edo aipatutako dokumentazioarekin batera aurkeztzen ez badira, Esteribarko Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera, 10 eguneko epea emango du, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela, ebaizpena eman ondoren.

8.- EBAZPENA

Esteribarko Udalak aurkeztutako eskaerak baloratuko ditu eta dirulaguntzak Alkatetzaren ebaizpen bidez emanen dira.

9.- DIRU LAGUNTZA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntza herriko jaietako jardueren programaren eta aurrekontuaren arabera emanen da, kontuan hartuta, gehienez ere, beharrezkotzat jotzen den guztietan, Udalak honako hau emanen duela:

- a) 400 €kopuru finko gisa, eta zenbateko aldakor bat, deialdia ebazteko unean udal-errolan inskribatutako biztanle bakoitzeko 15 €-tik gorakoa izanen ez dena.
- b) Bainu kimiko baten kostua.
- c) Elektrizitate hargunearen egokitzea
- d) Karpa muntatzea eta desmuntatzea
- e) Aulkiak eta mahaiak maileguan uztea
- f) Erantzukizun zibileko aseguruaren kostua

Puzgarriei dagokienez, **Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Joko eta Ikuskizun Publikoen Atalak ezarritako erabilera publikoko ekipo puzgarriak baimentzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko ezarritako protokoloan** xedatutakoa aplikatuko da, eta, ondorioz, beharrezkoa izanen da:

- Ekitaldiaren antolatzaileak eskabidea aurkeztea, jarduera hasi baino gutxienez 15 egun lehenago, eta instalazioaren kokalekua, martxan jartzeko hasiera eta amaiera datak eta ondoko dokumentazioa atxikiz:
 - a. Instalazioaren dokumentazio teknikoa, ekipoaren deskribapena eta segurtasunarekin zerikusia duten alderdi esanguratsuenak.
 - b. Fabrikatzailearen edo hornitzailearen ziurtagiria, ekipoa EN 14960 arauarekin bat egin dela edo segurtasun-baldintza baliokideak bete dituela adierazten duena.
 - c. Ekipoa berrikusi edo mantentzeari buruzko ziurtagiria edo agiri baliokidea.
 - d. Erantzukizuneko aitorpena, instalazio edo gainbegiratze baldintzak eta organo eskudunak zehazten dituen bestelakoak betetzen direla dioena.
 - e. Jardueraren balizko arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguru, sute-arriskua barne.
 - f. Zerbitzuan jarri aurreko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostena.
 - g. Udalak, behar izanez gero, erantzukizuneko aitorpenean azaldutakoa betetzen dela frogatzeko agiriak eskatu ahal izanen ditu, baita ekipoen instalazioa ikuskatu ere, haien segurtasuna egiaztatzeko.
- Aldi baterako instalazioetan, instalazio eramangarrietan edo instalazio desmuntagarrietan egin nahi diren jolas-jarduerak udal-lizentzia berezia beharko dute, administrazio-prozedura laburtu batean emango dena, kasu bakoitzerako egokiak diren segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren (martxoaren 13ko 2/1989 Legearen 6. eta 7. artikulua).
- aurretiazko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostenik ez egoteak ekipoa martxan jartzea baldintzatu dezake.

10.- ORDAINKETA

Dirulaguntzak aldez aurretik ordainduko dira, emandako dirulaguntzaren % 100era arte. Ordainketa hori zaindariaren jaia ospatu baino hilabete lehenago egingen da. Ordainketa 2 hilabeteko epean erregularizatuko da, eskatutako gastuen egiaztagiri guztiak aurkeztu ondoren.

Onuradunak ez badu behar bezala justifikatzen diruz lagundutako programa egin dela, itzulketa eskatuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren I. kapituluaren xedatutakoaren arabera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

11.- JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioak, oro har, honako agiri hauek jasoko ditu.

- Diruz lagundutako programaren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa.
- Diruz lagundutako programa finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza.
- Gastuak jatorrizko fakturen edo fotokopia konpultsatuen eta horien ordainketa-agiriaren bidez entregatuko dira.

12.- EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEKO EPEA

Egiaztagiria Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira, jaiak amaitu eta bi hilabeteko epean. Epe hori preklusiboa da, eta epe hori igarotakoan ez da onartuko dokumentazio gehigarrik.

Aipatutako dokumentazioa osoa ez bada, Esteribarko Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera, 10 eguneko epea ematen du, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko dio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela, aldez aurretik ebazpena emanda.

13.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

a) Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan xedatutakoa beteko da. Lege horrek toki-erakundeen Administrazioaren dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen du.

b) Zehapen-prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa izanen da.

14.- DIRULAGUNTZEN ARAUBIDE OROKORRA

Deialdi honetan aurreikusi ez den guztian, Esteribarko Udalako kultura, hezkuntza, kirol, gazteria, laguntza, giza laguntza eta gizarte arloetako helburuetarako dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza aplikatuko da. Ordenantza hori 2005eko apirilaren 27ko 50. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Halaber, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoa beteko da.

Esteribarren, sinadura elektronikoaren datan.

ALKATEA

Sin.: Mikel Gastesi Zabaleta jauna